Noticias de Gipuzkoa
Guipúzcoa
29/10/25
Pr: Diaria
Tirada: 3.963
Dif: 2.579
Cod: 17893716
Pagina: 8
Secc: LOCAL Valor: 2.093,85 € Area (cm2): 263,4 Ocupac: 29,86 % Doc: 1/1 Autor: Aurreko harreretan pilatutako esperientz Num. Lec: 3000

Bonbardaketa batean zauritutako Gazako bi anaia artatu dituzte Donostia Ospitalean

Hiru urteko mutikoa eta bederatzi urteko neskatila dira eta lesioak dituzte gorputz-adarretan

DONOSTIA – Gaitz larriekin Euskadira bideratutako Gazako bost adingabeak artatzen ari dira jada Osakidetzako hiru ospitaletako medikuak. Bost hilabete eta bederatzi urte bitarteko adina dute, eta klinikoki "egonkor" egon arren, leherketetan jasandako lesio traumatikoak tratatu beharko dizkiete, besteak beste.

Joan den astelehenean Madrilgo Torrejón de Ardozeko aire-basera iritsi ziren 19 adingabe palestinarren eta 73 senide laguntzaileen taldeko kide dira aipaturiko bost haur horiek. Banaketa egin ostean, hainbat autonomia-erkidegotako ospitaleetara eraman zituzten osasun-arreta jasotzeko.

Euskal Autonomia Erkidegora ebakuatutakoak laguntza jasotzen hasi dira Osakidetzaren ospitale publikoetan; bi Donostia Ospitalean, beste bi Gurutzetan (Barakaldo, Bizkaia) eta bosgarrena Basurtun (Bilbo).

Zauriturien egoeraren berri emateko, komunikabideen aurrean agertu ziren atzo, Donostia Ospitalearen kanpoaldean, Cristina Calvo haurren ospitaleko unitateko arduraduna eta Unai Hernández Dorronsoro pediatra, Estíbaliz Arguelles pediatriako erizaintzako koordinatzailearekin batera.

Bertan azaldu zutenez, traumatismoez gain, besteak beste, arazo gastrointestinalak eta gaixotasun hematologikoak ere badituzte Gazatik ekarritako haurrek, eta bost hilabeteko haurtxoaren kasuan, baita sortzetiko kardiopatia bat ere. Haurra Gurutzetako Ospitalean geratu da, egoera kliniko egonkorrean, baina behin betiko azterketak burutu eta kirurgia egingo dioten erabaki zain.

Bizkaiko zentroetara eramandako beste bi haurrei proba eta ebaluazio medikoa egiten ari zaizkie, eta oraingoz ez dute ospitaleratzerik behar izan. Lau urteko neska txiki bati anbulatorioan jarraipen hurbilekoa egiten ari zaie, gibeleko arazorik ba ote duen baztertu ala ez erabakitzeko egindako frogen emaitzak jaso bitartean.

Donostiara ekarritako bi txikiei dagokienez, anai-arrebak direla esan zuen Calvo doktoreak, hiru urteko mutikoa eta bederatzi urteko neskatila; anbulantzian ekarri omen zituzten Madrildik, eta, pediatriako larrialdietako unitatetik pasa ondoren, Donostiako ospitalean geratu dira.

Hernandez Dorronsorok zehaztu zuenez, anai-arreba biek "bonbardaketaren ondoriozko bigarren mailako lesio traumatikoak" dituzte, batez ere gorputz-adarretan, eta joan den irailean Gazan larrialdiko ebakuntza egin bazieten ere, tratamendu gehiagoren premia omen daukate, bai traumatologia zaurietan, bai bestelako ondorioei dagokienean ere.

Diziplina anitzeko mediku talde batek aztertu dituela esan zuen, hainbat espezialitatetako tratamenduak jarraitu beharko dituztelako, hala nola ortopedia eta haurren errehabilitazioa, baita haur eta gazteen psikiatriako fakultatiboen laguntza ere.

Laugarrenez hartu dute parte Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Osakidetzak Gobernu zentralarekin batera tankera horretako ebakuazio batean, beraz, guztira 27 badira dagoeneko, Gazatik patologia larriekin etorri eta euskal osasun publikoak artatu dituen haurrak.

Aurreko harreretan pilatutako esperientzia kontuan hartuz, "gehien" eragin diena paziente adingabeen eta haien senideen "alderdi psikologikoa eta emozionala" izan direla esan zuen Calvo doktoreak, eta horregatik, guztiek "babes handiaren premia" dutela. Amaitzeko, biziki eskertu zuen Gizarteratze eta Migrazio Ministerioarekin lankidetzan aritzen den eta ostatua, mantenua eta arreta psikologikoa eta juridikoa kudeatzen dituen Accem GKEak, egiten duen lana, bai eta fakultatiboei pazienteekin eta senideekin komunikatzeko aukera ematen dien "ohe ondoko itzulpengintza" ere. – *M. Tolosa*